

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

SEGURAKO UDALA

Segura, Zerain eta Mutiloa udaletako Idazkaritza lanpostua aldi baterako betetzeko hautaketa prozesua arautzeko oinarriak aldatzea.

Zerain eta Mutiloako udalek 2020ko ekainaren 5eko Osoko Bilkuran, eta Segurakoak 2020ko ekainaren 11ko Osoko Bilkuran onartu ostean, 2020ko ekainaren 24ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (118. zk.) argitaratu ziren Segura, Zerain eta Mutiloa udalerriek osatutako elkarteko Idazkaritza lanpostua (hirugarren mailakoa), gaikuntza nazionalako Toki Administrazioako funtzionarioen eskalari gordetakoa, bitarteko funtzionario baten bidez betetzeko hautaketa prozesuaren deialdia eta oinarri arautzaileak.

Zeraingo udalak 2020ko urriaren 21eko Osoko Bilkuran, eta Segura eta Mutiloako udalek 2020ko urriaren 28ko Osoko Bilkuran hartutako erabakien bidez, epaimahai kalifikatzailearen osaketaz ari den seigarren oinarriaren 1. zenbakia aldatu da; eta honela gelditu da idatzita:

«1. Epaimahai kalifikatzailea honela osatuko da:

Epaimahaiburua:

– Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantza Departamentuko teknikari bat; eta haren ordezkoa.

Epaimahaikideak:

– Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko teknikari bat; eta haren ordezkoa.

– Gaikuntza nazionalako Toki Administrazioako funtzionarioen eskalako 2 funtzionario.

Idazkaria:

– Segurako Udaleko karrerako funtzionario bat; eta haren ordezkoa.

Epaimahaia osatzeko garaian, inpartzialtasunaren, espezialitatearen eta profesionaltasunaren printzipioak bete daitezen zainduko da; eta, era berean, gizonezko eta emakumezkoen arteko parekotasuna bilatuko da.

Epaimahaiak aholkularien edo enpresa adituen laguntza eskatu ahal izango du egoki ikusten dituen ariketetarako; eta horiek beren espezialitate teknikoetan laguntza ematera mugatuko dira.»

Segura, 2020ko urriaren 30a.—Izarra Urdalleta Iraola, alkatea.
(5728)

AYUNTAMIENTO DE SEGURA

Modificación de las bases reguladoras del proceso selectivo para la cobertura temporal del puesto de Secretaría de los ayuntamientos de Segura, Zerain, y Mutiloa.

En el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de fecha 24 de junio de 2020 (n.º 118), se publicaron la convocatoria y las bases reguladoras del proceso selectivo para la cobertura temporal, mediante nombramiento interino, del puesto de Secretaría (clase tercera) de la agrupación de municipios constituida por Segura, Zerain y Mutiloa, reservado a la escala de personal funcionario de Administración Local con habilitación de carácter nacional, que fueron aprobadas por acuerdos plenarios de 5 (Zerain y Mutiloa) y 11 de junio (Segura) de 2020.

Por acuerdos plenarios de 21 (Zerain) y 28 de octubre (Mutiloa y Segura), se ha modificado el número 1 de la base sexta, referido a la composición del tribunal calificador, que queda redactado en los siguientes términos:

«1. El tribunal calificador estará constituido por las siguientes personas:

Presidencia:

– Un/a técnico/a del Departamento de Gobernanza de la Diputación Foral de Gipuzkoa; y su suplente.

Vocalías:

– Un/a técnico/a del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa; y su suplente.

– 2 personas funcionarias de la escala de Administración Local con habilitación de carácter nacional.

Secretaría:

– Un/a funcionario/a de carrera del Ayuntamiento de Segura; y su suplente.

En la composición del tribunal calificador se velará por el cumplimiento de los principios de imparcialidad, especialidad y profesionalidad; y se tenderá, asimismo, a la paridad entre hombres y mujeres.

El Tribunal podrá disponer la incorporación de asesores/as o empresas especializadas para las pruebas correspondientes de los ejercicios que estime pertinentes, limitándose dichos/as asesores/as a prestar su colaboración en sus especialidades técnicas.»

Segura, a 30 de octubre de 2020.—La alcaldesa, Izarra Urdalleta Iraola.
(5728)